

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Hasiera batean, gutxieneko bezero batzuk lortuta nahikoa izango da, ez dugu bezero berriak lortzeko helbururik izango. Gehien bat, ekimenak arazorik gabe aurrera egiten duela ziurtatzeko. Nola nahi ere, ontzi horiek herri erdiguneetan egongo dira kokatuta, beraz, ondotik igarotzen den edonor izan daiteke bezero berria. Esaterako, erdiguneetan kokatuta egoteak esan nahi du jende asko pasatzen dela ondotik, orduan, ikusten duen jende askori interesa piztuko zaio. Are gehiago, herritar guztien eskuerara egotearekin, beharreen dagoen jendea bertara juteko aukera handiago dago, eta inork ez du arazorik edukiko ontzi horiek aurkitu eta erabiltzeko.

Honen ostean, bezeroak mantendu eta ez joateko, ekimenak bide onetik jarraitzen duela ziurtatu beharko dugu, ontzien erabilera egokia dela bermatuz eta horien mantenua eginez, hau da, noizean behin garbitzeaz eta hautsita dagoenean konpontzeaz arduratuko gara.